

Etorkizuneko ZTIM lanpostuak

Debagoieneko enpresen gaitasun eta prestakuntza beharren analisia.

Zer aztertzen da?

Datozen 5 urtetarako Debagoieneko enpresetan beharko diren ZTIM (*) lanpostuak eta langileen profilak, prestakuntza beharrak eta gaitasunak identifikatu eta aztertu dira.

(*) ZTIM: Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika.

Nork hartu du parte?

Debagoieneko
23 enpresak


5.000 lanpostu
guztien artean

Teknologia-maila handi eta ertaineko enpresak aukeratu dira.

Enpresen ezaugarriak



- Metallurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa.
- Produktu metalikoen fabrikazioa.
- Informatika, elektronika eta optika produktuen fabrikazioa.
- Material eta ekipo elektriko fabrikazioa.
- Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa.
- Ibilgailu motordunen, atoen eta erdiatoien fabrikazioa.
- Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa.




- 0-9 langile
- 10-50 langile
- 51-100 langile
- 101-150 langile
- 151-200 langile
- 201-249 langile
- 250+ langile

Hurrengo urteetan aurreikusten diren lanpostuetarako **KONPETENTZIA, EGINKIZUN eta PRESTAKUNTZA** garrantzitsuenak.


Etorkizuneko lanpostu edo lanbideak kontratatzeke premia

Sortuko diren lanpostu gehienak profil teknikoak edo industria arlokoak dira, eskualdeko enpresa tipologiarekin bat eginez.

Gradu zein Lanbide Heziketa




Kontratatzeke profilek izan beharreko PRESTAKUNTZA:



Konpetentzia Teknikoak

Teknologia garrantzitsuenak

Eusko Jaurlaritzak 2030erako garatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planean jasotzen diren oinarriko teknologietatik, hauek dira eskualdeko enpresentzat esanguratsuenak:



Ezagutza Teknikoak


Enpresek aipatu dituzten beste konpetentzia tekniko batzuk:

Mekanika, elektronika, mekatronika eta informatika arloetan ezagutza	60%
Ezagutza industrial espezifikoak: CAD/CAM, Planeo interpretazioa	22%
Informatika arloan ezagutzak: Programazioa, datuen analisia, Hardware diseinua...	18%
Komertzialak, Salmenta teknikariak eta Zuzendariak	13%
Zerbitzu kudeatzaileak, Zerbitzu ingeniariak...	9%

Zeharkako Konpetentzia

Zeharkako konpetentzia garrantzitsuenak

Pertsonek ezagutza teknikoak izateaz gain, zeharkako konpetentziak barneratuta izatea eskatzen dute enpresek. Hau da, konpetentzia tekniko zein zeharkakoak izatea. Eta identifikatu da, perfil edo lanpostu batzuetan zeharkako konpetentzia batzuk falta dituztela.



Enpresei garrantzitsuak iruditzen zaizkien beste zeharkako konpetentzia batzuk:

Proaktibitatea, lanerako gogoia eta inplikazioa	50%
Talde lanean aritzeko gaitasuna	45%
Ikaskuntza gaitasuna	40%
Anbizioa	34%
Kreatibitatea	26%


ZTIM profilaren eskasia



ZTIM profilen eskasia orokorrari, **profil hauetan dagoen emakume portzentaia baxua** gehitu behar zaio.

Zeharkako gaitasunen garrantzia

Gaitasun teknikoez gain **motibazio, prestutasuna eta jarrera positiboarekin lotutako gaitasunek** ere garrantzi handia dute:




Aipatzen diren beste kompetentzia batzuk:

Gaitasun kritiko eta analitikoa	Arazoetarik ikasteko gaitasuna	Ingurunera egokitzeko gaitasuna	Erresilientzia
Arazoen ebazpena	Ikasteko gaitasuna	Pentsamendu kritiko eta analitikoa	Lidergoa

Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna hobetzen jarraitu beharra:

Ingelesa	Alemana	Txinatarra
----------	---------	------------

Teknologian ezagutza-hutsuneak



Bailarako enpresen jarduera motagatik, etorkizuneko teknologiak izango diren asko ezezagunak dira momentuz beraiantzat.

Gutxien ezagutzen diren teknologiak:

- Sistema Ziberfisikoak
- Teknologia Kuantikoak eta Neutronikoa
- Potentzia elektronikoa
- Nanoteknologia
- Energia Biltegitratzea

Ezjakintasunari irtenbidea emateko:

Enpresen etorkizun hurbilean beharko dituzten **profilak identifikatzeko mekanismoak** abiarazi behar dira, garrantzitsua baita etorkizuneko teknologiak ezagutzea, ondoren, **implementatu edo ez erabakitze**ko ahalmena izateko.

Gazteak industriara erakartzeko gakoak

Oztopoen artean, perfil eskasiaren ostean, lanpostuak erakargarri egiteko zailtasunak dituztela adierazi du enpresen **%43** ak.

Talentu gaztearentzat nahikoa erakargarria den balio-proposamena egituratzeko ahalegina egin behar dute enpresen
ZTIM arloetan bokazio profesionalak piztu behar dira, maila baxuenetatik hasita eta aukera berdintasunean oinarrituta.
Industriako lan motarekiko gazteek dauzkaten estereotipo kaltegarriak desegin behar dira.
Enpresen arteko lehia handia dela eta, gazteak bertan erretentzeko estrategiak pentsatu beharra dute enpresen (<i>ordutegi/egutegi malgutasuna, telelana, etab</i>)

Galdetegian parte hartu duten enpresek

2027 urterako aurreikusitako profilen beharra lanbide-kategoriaren arabera:

